

2. H.D. - Lur planetan biziaren sorrerari buruzko teoriak, sinesmenak, hipotesiak eta bizidunen garapenean eragina duten faktoreak identifikatzea eta aztertzea eta ikerketari lotutako azalpenak eta galderak zientifikoki adieraztea eta erantzutea.

1.- Lotu itzazu termino egokiak:

Lamarck	1	Izaki bizidun guztiak aurreko beste batzuetatik datoz, hainbat aldaketa geldoen ondorioz.
Egokitzapen intraespezifikoa: inguruaren eragina.	2	Mikrobiologiaren aintzindaria izan zen.
Oparin	3	Jainkoak izaki bizidunak sortu zituen eta sortu zituen moduan egon dira momentu honetara arte.
Hautespen naturala eta artifiziala	4	Eboluzioaren teoria modu paraleloan eta osagarrian garatu.
Miller eta Urey	5	Lurreko hasierako bizi baldintzak simulatu eta molekula organikoak sintetizatu ez-organikoetatik abiatuta.
F. Redi	6	Bizia bizirik gabeko kimikatik sortu zen.
Mutazioak	7	Inguruneak bertan bizi diren izakiak eraldatu ahal ditu, baina ondorengoek ez dituzte aldaketa horiek jasotzen.
Eboluzionismoa	8	Izaki bizidunen material genetikoan gertatzen diren aldaketak ondorengoei transmititzen zaizkienak.
Louis Pasteur	9	Naturak aukeratzen ditu bertan bizitzeko baldintzarik egokienak dutenak.
Kreazionismoa eta Fixismoa	10	Lehenengo organismoak berez sortu ziren; gainerakoak, berriz, hasierako haiengandik eboluzionatuz.
Darwin eta Wallace	11	Espezieak sailkatzeko genero eta espezie sistema asmatu.
Aldakortasun intraespezifikoa	12	Espezie batek izan ditzakeen aldaerak, espezie horren biziraupena bermatzen duena
Linneo	13	Organismoak ez dira berez sortzen, beste izaki bizidun batzuk lagatako arrautzetatik eta sortzen zirela frogatu zuen.